

KOMUNIKAZIO ALTERNATIBOKO SAREA (CAR) ELKARTEAREN ESTATUTUAK

eta

CAR Sarearen jokabide, irudi eta mezuei buruzko kodea

SARRERAGizartea eraldatzea helburu duen Sareko Komunikazio Alternatiboko CAR elkartearen funtzionamendua zehaztea eta arautzea da estatutu honen xedea.

I. KAPITULUA

IZAERA1. ARTIKULUA: Eratzea eta sorrera

Zinema sozial eta alternatiboaren esparruko errealizadoreek, jaialdietako eta telebistetako ordezkariak, gidoilariak eta ekoizleak osatzen dute CAR. Sareak nazioarteko eremuan dihardu eta gizartearen hezkuntza globalari ekarpena egin nahi dio, Giza Garapen Bidezko eta Iraunkorra lortzeko asmoarekin. Kultura, Communication y Desarrollo KCD gobernuz kanpoko erakundearen sorrera da sarearen jatorria. Euren lanak ezagutzera eman edo zinema sozial eta konprometituaren inguruan sentsibilizatzeko guneak eskaini nahi dituzten pertsona eta kolektibo guztiak elkartzeko beharrari erantzun nahi dio. Sarea 2009ko maiatzaren 3an eratu zen.

2. ARTIKULUA: Eskubide osoko kideak

CAR Sareko partaide dira zinema sozial eta alternatiboaren eremuko errealizadoreak eta jaialdi eta telebistetako ordezkariak eta pertsonak, Giza Garapen Bidezko eta Iraunkorra lortzeko bidean euren lanarekin ekarpena egiten dutenak, betiere hori jakitera ematen badigute euren datuak eta adostasuna KCDra bidaliz, erakundearen datu-basean sartzeko.


3. ARTIKULUA: Barne-araubidea

Barne-estatutu hau eta bazkideek eta Koordinazio Taldeak hartutako erabakiak izango dira Sarearen gidalerroak.

II. KAPITULUA

HELBURUAK4. ARTIKULUA: Helburu orokorrak

- Giza Garapen Bidezko eta Iraunkorraren aldeko zinema- eta bideo-lanak sortzearekin eta zabaltzearekin lotura duten eragileen arteko harremanak sustatu eta sendotzea. Izaera sozialeko zinemako eta bideo-ko sortze-lanak zabaltzeko gune berriak bilatzea. CAR Sareko errealizadoreen zinema- eta bideo-lan sozialen materiala ahalik eta jende gehienaren esku jartzen



laguntzea, ohiko zinema-guneetan (zinema-dendetan, areto komertzialetan, zineklubetan...) izaera soziala duten eta eskuratzeko zailak diren lanak eskaintzeko helburuarekin. **Berariazko helburuak**

- Izaera sozialeko film luzeak eta laburrak, dokumentalak eta fikziozko lanak bilduko dituen artxibategia osatzea, hiritargo kritikoa eta eraikitzailea sortzen laguntze aldera. Artxibategiaren bidez, CAREko kide diren pertsonak eta erakundeek bateratze-lana egingo dute eta ikus-entzunezko lanak CAREkin lotura duten guneetan erakutsiko dira.
- Sareko partaide diren pertsonen datu-basea sortzea, material, esperientzia eta ezagutzen elkartrukeak sustatzeko. Interesa dutenek CAREko profesionalengana jotzeko aukera izan dezatela, besteak beste, hitzaldietan parte hartzeko, solasaldietarako, zinema-erakustaldietarako eta materialak maileguan hartzeko.
- Zinema soziala egiten duten errealizadoreak zinema-jaialdiekin harremanetan jartzea, bai gaur egun KCDrekin zerikusia dutenekin bai etorkizunean izango dutenekin, egileon izaera sozialeko lanak ahalik eta leku gehienetan erakusteko xedearekin. CAREko partaideentzat interesgarriak eta onuragarriak izan daitezkeen ekitaldiei, jaialdiei eta albisteei buruzko informazio zehatza eskaintzea. KCDri alde guztietatik bidaliko diote informazioa, eta Sareak kideen artean banatuko du.
- Ezagutza espezializatuen trukea sustatzea, hau da, sorkuntzaren, ekoizpenaren, gidoigintzaren eta hiritargo kritikoa eta eraikitzailea sortzera bideratutako zinema-gaien inguruko ezagutzak partekatzea. Sareko Komunikazio Alternatiboko CAR elkartearen helburuen, egitekoen eta jardueren hedapena optimizatzea, Sarearekin lotura duten pertsona eta erakundeen kopurua handitzeko eta guztien izaera sozialeko ikus-entzunezko lanak zabaltzeko.


III. KAPITULUA JOKABIDE-KODEA

5. ARTIKULUA: CAR Sarearen jokabide, irudi eta mezuei buruzko kodea

CAR Sareko pertsona eta erakunde kide guztiok, gure ikus-entzunezko lanen bidez, konpromisoa hartua dugu Hezkuntza Globalera bideratutako jarduerekin, egunen batean Giza Garapen Bidezko eta Iraunkorra lortzeko asmoz. Arrazoi horregatik onartzen dugu jokabide-kode hau. Eguneroko lanean gida izango da, gure nahiak lortzeko bidean.

Gero eta globalizatuagoa den egungo mundu honetan, gizakiongan eta planetan eragina duten arazoengatik inguruko ezagutzak areagotzeko beharra ikusita, CAREk ekarpena egin nahi dio Hezkuntza Globalari ikus-entzunezko lanen bidez. Askotariko gaiak landu nahi ditugu, hala nola Giza Eskubideak, genero-ekitatea, nazioartekotasuna, garapena... gizakioi eta planetari eragiten diguten arazoak konpontzen lagunduko diguten gaiak, azken finean.


Zinema eta Bideoa dira gure lantresnak, formatu guztietan, herritarren gogoeta eta kontzientziarazioa sustatuko duten ikus-entzunezkoak, alegia.



Hezkuntza Globalari begira, ikus-entzunezko tresnak erabiliz honako hau lortu nahi dugu:

CAR Sarearen funtsezko xedea bideratzen duten printzipio berberak ditu KCD elkarteak, gobernuz kanpoko garapenerako erakundea den aldetik:

1. Askotarikoa eta plurala izango den komunikazioa sustatzea. Kulturaren eta kulturantzatasunaren garrantzia sustatzea. Komunikazioaren demokratizazioa sustatzea. Zinema egiteko aukerarik izan ez duten gizarte-taldeak eta komunitateak ikus-entzunezkoen eta zinemaren munduan sar daitezen sustatzea eta horretan laguntzea. Emakume errealizadoreen partaidetza bultzatzea. Ildo politiko autoritarioei, elitistek, arrazistek, xenofoboei, homofoboei eta edozein diskriminazio-motari aurre egitea, horien iruzurrak salatzea eta adierazpide guztiak errefusatzeko. Bestelako gizarte baten aldeko ekarpena egitea, injustiziarik, miseriarik, generoen arteko ekitate-faltarik, gerrarik, hondamendi ekologikorik, jazarpenik (politiko, sexual, erlijioso, etnikorik...) eta inolako esplotaziorik gabeko gizarte sortzeko. Kultur, erlijio-, etnia- edota sexu-antzasunen balio positiboak zabaltzea. Giza eskubideak, eskubide kolektiboak, generoen arteko ekitatea, ingurumenarekiko errespetua eta bake-kultura sustatzea. Herrialdeen arteko berdintasunezko harremanak sustatzea. Emigrazioaren gizarte-onarpena sustatzea. Pobrezia eta gizarte-bazterketa sorrarazten duten arrazoiak salatzea. Gizarte eraldatzeko prozesuen aldeko iritzi publikoa sortzea, giza garapen bidezko eta iraunkorra lortze aldera. **Irudiak erabiltzeko arau praktikoak** Irudi katastrofikoak edo idilikoak ez dira erabiliko kontzientzia onari lotutako karitate mugatua bultzatzeko, hausnarketa sustatzeko baizik. Pertsona guztiek gizaki gisa azaldu behar dute, eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-ingurumenari buruzko informazioa erakutsi behar da, kultura-identitatea eta duintasuna zaintzeko. Kultura herrien garapenerako pizgarri gisa aurkeztu behar da.
3. Pertsona interesdunen lekukotzak lehenetsu izango du hirugarrenen interpretazioen aldean. Pertsonak euren buruaz arduratzeko duten gaitasuna nabarmendu behar da. Mezua sortzeko orduan, publikoak globalizatzea eta orokortzea saihesteko modua hartu behar da kontuan. Garapenerako oztupoak argi eta garbi azaldu behar dira, bai kanpokoak eta bai barrukoak. Garapen desgokiaren gaian interdependentziak duen garrantzia eta erantzunkidetasunaren nozioa azpimarratu behar dira. Mezuetan miseriaren iturburuak (politikoak, egiturazkoak, naturaren ingurukoak) erakutsi behar dira, ikusleek jakin dezaten zer gertatu den ondorio horietara iristeko. Iraganaren jakitun izanda, gaur egungo egoeratik abiatu behar gara eta ikusi zer egin daitekeen muturreko pobrezia- eta zapalkuntza-egoerak desagerrarazteko. Botere- eta interes-arazoak azpimarratu behar dira, eta zapalkuntzarako baliabideak eta bidegabekeriak salatu.
9. Mezuetan diskriminazio-mota guztiak saihestu behar dira (arrazagatik diskriminazioa, sexuala, kulturala, erlijiosoa, sozioekonomikoa...). Orokorrean, komunikabideetan gizonak dira nagusi, eta publikitatean eta gainerako ohiko ikus-entzunezko jardueretan estereotipo femenino jakin batzuk erabiltzen dira, hau da, femeninoa denari gizatasuna kendu eta jabetzara mugatzen duen maskulinitatearen arabeko estereotipoak. Garapenerako Hezkuntzarako materialaren alderdi bisuala nabarmen hobetze aldera, aldatu egin behar da emakumeen irudia aurkezteko modua.



11. CAReko kide diren erakundeek eta pertsonak Kode honetako gomendioak osotasunean betetzen direla zaindu behar dute.

IV. KAPITULUA AEGITURA ORGANIKOA 6. ARTIKULUA: CAR Sareko kideen betebeharrak eta eskubideak Kideek honako betebeharrak dituzte:

- Estatutu honetan zehaztu diren betebeharrak guztiak zorrotasunez betetzea. Kideek honako eskubideak dituzte:

- Sareak aurrera eramaten dituen jardueretan parte hartzea.

7. ARTIKULUA: CAR Sareko kide izateari uztea

- Norberaren borondatez uko egitea Sareko kide izateari. Kanporatua izatea. Kidearen heriotza.

V. KAPITULUA

GUNE BIRTUALA

8. ARTIKULUA: Agerikotasuna

CAR Sareak bere gunea du www.kcd-ongd.org webean.